

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**HEZKUNTZA**

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntza Departamentuak egunkari baten aurkako legezko akzioak hasiko ditu Iruñeko Iturrama institutua "ETAren aldekoa" zela kalifikatzeagatik

Mendoza kontseilariak ikastetxeko zuzendariari bere elkartasuna agertu dio ikusirik zer-nolako "irain larriak" jaso dituzten, eta hezkuntzako komunitateari dei egin dio "probokazio zakar eta justifikatu gabekoetan eror ez dadin"

Miércoles, 19 de agosto de 2015

Hezkuntzako kontseilari Jose Luis Mendozak gaur goizean agindua eman du "La Gaceta de los Negocios" egunkari digitalaren aurkako legezko akzioak has daitezzen; iragan abuztuaren 15ean, informazio bat zabaldu zuen eta, haren arabera, bigarren hezkuntzako foru-sareko ikastetxe publiko bat, Iruñeko Iturrama institutua, "ETAren aldekoa" zela esaten zen.

Egunkari horrek, Nafarroako Hedabideen Irakurleen azken azterketaren arabera (CIES azterketa, 2015eko 1. bolada), mila irakurle baino gutxiago ditu Foru Komunitatean, eta salaketa hori poliziaren ustezko txosten batean oinarritzen du; txosten horretan adierazten denez, ETARI lotutako 17 pertsonak ikastetxe horretan ikasi zuten.

Iturrama BHI bigarren hezkuntzako ikastetxe publiko bat da, 1986-87 ikasturtean sortu zen, eta DBH nahiz Batxilergoa euskaraz eskaintzen ditu. 2014-15 iragan ikasturtean. 714 ikasle matrikulatu ziren bertan. Duela hiru hamarkadetatik, beraz, Nafarroako hiriburuko eraginpeko eremuan dauden hiru ikastetxe publikoetako ikasleak izan dira bertan, bereziki: San Francisco, Hegoalde eta Amaiur. Batxilergoan, Tafalla eta Zangozako ikasle euskaldunak hartzen ditu ere; eta Batxilergo Artistikoaren kasuan, Foru Komunitatean euskaraz eskaintza hori egiten duen zentro bakarra da.

Mendoza kontseilaria ikastetxeko zuzendari Tomás Astizekin harremanetan jarri zen atzo, asteartea, ikusirik zer-nolako "irain larriak" jaso zituzten; elkartasun-mezu hori Iturrama BHiko hezkuntza-komunitateari helarazteko eskatu zion, eta adorea eman zien ere "hain zakarrak eta justifikatu gabeko probokazioetan" eror ez daitezzen.